

Zein da zuzena ?

- Sareko banku-transakzioak **ugalduz doaz** egunetik egunera.
- Sareko banku-transakzioak **ugaltzen doaz** egunetik egunera.





- Tradizioko forma zabalduena **-TU(A)Z joan** aditz-perifrasia da: Hegoaldean eta Iparraldean, eta garai guztietan.
Erabilera horixe da zuzena eta gomendatzekoa.

- Sareko banku-transakzioak **ugalDUZ doaz** egunetik egunera.

??Sareko banku-transakzioak **ugalTZEN** doaz egunetik egunera.

Tradizio horren erakusgarri, hona *Orotariko euskal hiztegiko* zenbait adibide¹:

- Ariman gehiago eta gehiago sustraituz doa.
- Handituz joanen da.
- Flakatuaz nindoan.
- Azkenduaz doaz nire kontakizunok.
- Noa zahartuz.

¹Moldaturik. OEH, 'joan' sarrera, I. 6.

Badira **-TZEN joan** egitura baliatzen duten adibide bakan batzuk OEHn, baina Hegoaldeko autore gutxi batzuen idatzietan, autore berriak.



- Gaur egun, ordea, noranahi zabaldu da **-TZEN joan** egitura Hegoaldean. Hain zabaldua, non ia ordezkatu baitu **-TU(A)Z joan** perifrasi aspektuala. Iparraldean, berriz, ez da gertatu ordezte hori.

Interferentziaz sortua da adiera horretan, **-TZEN joan** egitura. Nola sortu da interferentzia hori? Hona bi azalpen:



1. Bi aditz-perifراسي hauek ditugu euskaraz progresioa adierazteko (ez dira, halere, sinonimoak):

- -TU(A)Z JOAN: Pazientzia amaituz joan zitzaion.
- -TZEN ARI IZAN: Pazientzia amaitzen ari zitzaion.

Biak nahastearen ondorioz eratuak dira honelakoak:

??Pazientzia amaitzen joan zitzaion.

2. Erdarazko gerundio guztiak mekanikoki -TZEN itzultzeko modu arrotza, -TU(A)Z zokoraturik:

- Bidaiatuz sendatzen da gaitz hori.

*Bidaiatzen sendatzen da gaitz hori.

- Bestalde, ongi erabiltzen eta bereizten dira **-TZEN** eta **-TU(A)Z** honako esaldi honetan :
 - Irakurri**z** eta idatzi**z** ikasten da idaz**ten**.

- **ZERTAN** ikasten da? Idaz**TEN**.
- **NOLA** ikasten da? Irakurri**Z** eta idatzi**Z**.

Beste aholku batean jorratuko dugu gai hau.



Ohikoa da **-TU(A)Z joan** perifrasi aspektuala erabiltzea zientzia-prosan, askotariko fenomeno, gertakari eta egoeren progresioa deskribatzeko.

Hona zenbait adibide «EHUskaratuak» corpusetik ateratakoak:





- Kontzeptu horien esanahia **zorroztuz joan da** lege-testuek definitu ahala.
- Gero, txilardi zabaletan, laborantzarako eremu txikiak **tartekatuz joan ziren**.
- Ondoren, aire-masa hori mendebalderantz mugitzen da hego-ekialdeko alisioekin, eta gutxika **berotuz joaten da** eta **hezetasuna bilduz**.



- Ale txikiak **haziz doaz** atomoak inguratzen dituen likidoa egiturara etengabe **gehituz doalako**.
- Erradio ionikoak **handituz doaz** taula periodikoko talde batean behera egin ahala:
 $\text{Li}^+ < \text{Na}^+ < \text{K}^+ < \text{Rb}^+ < \text{Cs}^+$.
- Hazkundera **ezereztuz zihoan**, eta nonahi ageri ziren ahultasun ekonomiko, sozial eta instituzionalaren seinaleak.



Gehiago jakiteko:


Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea (1987). “-TU(a)Z/-TZEN + joan”. In *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - II*, Bilbo, Euskaltzaindia, 473. or.

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea (2011). “-TUZ JOAN / -TZEN JOAN perifrasiak”. In *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - VII*, Bilbo, Euskaltzaindia, 326-328. or.

Euskara Institutua, EHU, “-tzen”, *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg

Bukatzeko, hona egitura progresiboari buruzko fitxa bat, EHULKUren aholkuetan landutakoa:

- [-TZEN ari izan/ibili/egon/jardun](#)



UPV EHU

EHULKUren aholkuak

Egitura progresiboak: -t(z)en ari izan/ibili/egon/jardun

Euskara Zerbitzua

1

Neska gazte**ak** biolina jotzen du.

2

Neska gazte**a** biolina jotzen ari da.

1

